

Kasu praktikoa

Barañainen 4 kidek osatutako familia bizi da. Ama, Laura, 34 urtekoa, Uruguaitik etorri zen Nafarrora duela 12 urte. Lehenengo 8 urteak Cabanillasen pasa zituen, bertan barazkiak eta fruitak biltzen, nahiz eta bera iturgina izan ofizioz. Etorri berritan saiakerak egin zituen bere lanbideari eusteko, baina ez zuen lortu, lan eremu hori oso maskulinoa baita. Duela 2 urte familia osoa Barañainera aldatu zen. Ama kutxazain lanetan dabil bertako supermerkatu batean. Laurak ez du inguruan sare sozialik eta askotan lana eta familia ardurak bateratzea kostatzen zaio.

Laurak, hemen sare sozial edo familiarrik ez zuenez, duela bi urte bere ama Manuelari bere etxera etor zedin eskatu zion.

Seme zaharrenak, Ernestok, 10 urte ditu. Eskolan emaitza akademiko onak ditu, baina argi azaltzen du ez duela eskolara joan nahi. Ez da inoiz gelditzen beste hurrekin, ez patioan, ez bestelako espazioetan, ez baitu lagunik. Cabanillasera bueltatu nahiko luke, bertan bai lagun batzuk zituelako eta herritik aske ibiltzen zelako haiekin.

Ana, 6 urtekoa, erdiko alaba, oso gustura joaten da eskolara eta lagun batzuk egin ditu. Batzuetan konzentratzea kostatzen zaiola esaten du bere irakasleak, atenditu ordez margotzen ibiltzen dela azalduz.

Uxuek 2 urte eta 8 hilabete ditu. Ez du erakutsi erresistentziarik haur eskolara joateko eta hortaz ama ez dago kezkatuta. Bi urteko gelan dago, beste 26 haur eta bi hezitzaileekin batera. Soilik hezitzaile batekin onartzen du eguneroko zainketetan akonpainatzea. Hezitzaile hau, Aitziber, kezkatuta dago. Ez du inolako arazorik sortzen gelan, soilik batzuetan urduritzen denean oihukatzen duela, horrexegatik otsaila arte ez zegoen berarekin arduratua. Jada 4 astez behaketa egin ondoren kezkarriak diren hainbat jokabide behatu ditu: jolas bera errepikatzen du behin eta berriro, adibidez, egurrezko eraztunak ontzi batean sartu eta atera; ez du hezitzailea bilatzen ezertarako; zainketa uneetan uzten dio beharrezko laguntza eman dezaion, baina ez du parte hartzen eta ez dio ia begiratzen; amak kontatu dio Aitziberri bere ahizpa Ana ere berantiarra izan zela hitz egiten. Baina Uxuek, egun, ez du hitzik esaten eta gutxitan bilatzen du beste nolabaiteko komunikazioa.

Gainera Manuelak alzheimer diagnostikoa jaso berri du, azken bolada honetan bere kabuz egunerokotasuneko ekintzak egiteko zailtasunak erakusten hasi da. Esan dezakegu orokorrean bere autonomia maila asko murriztu da.

1) Azaldu haur hezitzaileak egin dezakeen esku-hartzea, ahalik eta zehaztasun handienez eta bere figura profesionalaren funtzio zein helburuekin harremanatuz.

2) Azaldu modu laburrean Gizartean eta Komunitatean Esku-hartzea lanbide heziketa familiako beste zikloetako profesionalek egin dezaketen esku-hartzea familia honi sostengua emateko. Horietako baten proposamena garatu sakonki.

